

# Etno-testuen transkripzio metodologia

JUAN MANUEL ETXEBARRIA

(Deustuko Unibertsitatea)

Haronako bide bat zelangoa den adierazteko, bertatik ibilita egotealakorik ez dago egur eskarmentadua sugin ona izaten bait da. Nik neuk, aspaldian eginik baina argitaratu berri dut nire neure doktorego tesia *Zeberio herriko euskararen azterketa etno-linguistikoa* titulupean eta zelan ez, hortxe bertan oinarrituko naiz “Etno-testuen transkripzio metodologiaren” haronakoan.

Zeberio herrian darabilgun esaera zahar batez hasi nahi dut oraingo honetako egin behar hau eta honela dio: “Min bako arrana ugerratzaten yok”. Honek esaera honek diñona egia izaten bada ere, Zeberio euskararen “arranak” badaragoio eragon be oraindik, ugertu barik eta gogatsu bere betiko arrantotsean.

Zeberio euskara, beste euskalki, azpieuskalki eta aldakien ondoan jartzean, Axularren pasartetxo hau datorkit gogora:

Badakit halaber ezin eda naitekeiela euskarazko mintzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira euskal herrian... Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztitutze euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere...

Axularrekin bat nator eta Zeberio hizkuntz-prozesu bizi aztertzeraz On Jose Migel Barandiaranen aholku batek bultzatu nau.

Hamabost urteotan, bere zuzendaritzapeko Bizkaiko Etniker taldean daragoiot batez ere, Gorbeia inguruetako mitologia-ipuinak biltzen eta sarri entzun diot Leipziger-eko unibertsitateko Wundt irakasleak berari esandakoa: “Alferrik zabilta, zuen problema denak, kulturako problemak dira ta. Kultura batere ez duzu konprenituko sekulan, bizi ez baduzu zerorrek. Liburuetatik ez duzu ondo ikasiko. Bueno ba, —esan nion—, kultura ulertzeko, bizi egin behar bada, nik bizi dudana kultura bakarra euskal kultura da! Eta halaxe abiatu nintzen”. Ni neu ere, neure Zeberio abiatu naiz, Zeberio seme naizelako eta bertako kultura, hizkuntza barruan dela, inongoa baino hobeto ezagutzen dudalako.

Tesi honen helburu orokorretik hasiz, hizkuntzaren komunikabide prozesua psiko-fisiologikoa izanik, gizarteko alkar komunikazioan era askotako aldaketak sortu

dira historian zehar eguneroko hizkeraren berezko lege ekonomiku, eufoniku eta transmisio ohiturazkoak bitarteko izan direlarik.

Herri-euskera, jatorrizko sistema idatzitik aldatuz edo urrunduz joan da, herria, analfabeto izan delako, baina hor dago, luzarorako ez bada ere, bizirik eta aberats. Herri-euskara baturantz joan nahi da eta horixe litzateke euskararen bizibidea, baina horretarako ezin dugu dagoen dagoeneko herri-euskera bizia gehiagokobarik baztertu, bizirik dituen edertasunak jaso eta erabili baino.

Horixe berori egin nahi izan da doktorego tesi honetan. Zeberio haraneko euskara bizia ahal denik eta zehatzen jaso eta aztertu, etorkizuneko euskararen lagun eta argibide izan dadin batasunaren bidean.

Azterketa honetako alorrak ikusiz (hots, bokalismoa, kontsonantismoa, diptongazioa, deklinabidea, aditza, joskera, kontsonante multzoen ahoskera grupo fonikoan, grupo fonikoaren laburketak, azentua, transkripzio eta metodologia eta etno-testuak), ondorio orokor hauei erantzuten ahalegindu naiz, mugaz aparte, ahal izan dudana neurrian.

1. Norberak aztergai izan duen herri-euskara titirikarokoa izan arren eta metodorik zehatzena erabilita ere, muga handiak aurkitzen dira ahozko euskera biziaren baliabide mugagabeak jasoteko. Azken baten, pertsona bakoitza, bere berezkotasunez beterik bizi da etengabeko hizkuntz-prozesu baten barruan.

2. Etengabeko hizkuntz-prozesu horretako ahozko euskera bizian dauden nibe-lak, egon ere badaudelarik, arruntenetik hasi, irudi-topikoz beterikoaz jarraitu eta goi mailako landuenera heldu arterainokoak, jaso beharrekoak dira, tokian tokiko eta ahal denik eta zehatzen, bizi dugun egoeraren *urgentziak* eraginda, izan ere, euskal literatura idatziak ez duelako jaso euskararen izate osoa. Horregatik, aldaketa sozioekonomiko-kulturalaren eraginez eta belaunaldiz belaunaldi bidean zeozer uztea bidezko denez, ez da erreza ahozko euskara biziaren izate osoa jasotea, baina mugaz aparte, metodologia egoki bat erabiltzeaz gain, Euskadi luze-zabalean, norberak benetan bizi duen lurraldeko euskara mota biziaren altxor-jasoketa egitea, behar beharrezkoa da, aberastu nahi bada guztiok gura dugun etorkizuneko euskararen batasuna.

3. Euskara batuaren proiektua, idatziari begira eginda baina oraindik batzeko dagoen batu horren ahoskera ernari dago proiektu horren sabelean eta ez dakigu noiz eta zelan jaioko den, asko hitzun berri eta ez hain berri, idazkera-ahoskera berdineko "zesarea" egiten hasita badaude ere. Aztergai izan dudana herri-euskeran, han hor hemen, ikusten dira ikusi ere, hitzunen berezko lege fonetikoak eta euren eraginezko lege fonologikoak.

Herriak, historian zehar, ahoskera-bide batzuk egin egin ditu bere berezko legeon arabera. Zeberio haraneko ondorioak hor dira eta beste herrietakoak ere atera egin behar lirateke eta ondorio guztion bateratze-bideak erabilten hasi, "Idatz eta Mintz", bikiak izan arren, bakoitzak bere nortasuna duelako.

4. Euskararen batasunari deusala, baten baino sarriagotan, zertan ez dela, hainbat mailegukeria ere entzuten da Euskal Herriko haronakoan. Zuberoak duena Zeberioak ez badu, hartu egin behar du, eta Zeberioak duena Zuberoak ez badu, beste hainbeste. Horretarako, herriz herri bizirik dagoena ondo ezagutu behar da eta

denok aberastu batasuna zainduz. Ezjakinkeriazko “tabula rasa”-rik inondik eta inora ere ezin dugu onartu. Zeberio harana be, mendebaldeko ertzean egon arren Euskadi da eta zorionez ia-ia %eko 100ean *euskalduna*.

5. Hizkuntza bizia, bizitzarekin doa eta herri-bizitzako gehiengoak ez du hizkuntza arazoa planteatu ere egiten. Herria *bizi* da eta gizarte harremanetarako, beste tresna batzuen artean hizkuntza darabil. Zelango hizkuntza? Ba, ahalik eta ekonomikuena, eufonikuena eta belaunaldiz belaunaldi transmisio-ohiturako galbahetik eralgitakoa. Azken baten, bizitzako egoera ezberdin bakoitzerako behar beharrezkoen duena. Hortxe, bizi bizian da hizkuntzari neurriak hartzea, gero, “balizko oleak burdinarik ez”.

Hausnarketa hau egin ondoren goazen etno-testu-batze bidera beti ere aholku hau kontuan harturik: jan-edanak ahotik ezeze begietatik ere sartzen zaizkigu, ba, entzuteko begiak itxi eta *belarriak* zabaldu, *belarriak* bait dira entzuteko eta ez begiak.

Etno-testu bat jasoteko, beste batzuen artean, jarraian aipatuko ditudan puntuak euki behar dira kontuan:

### 1. Berri emailea:

Mendel-en idar-legeen zehaztasunera heltzea ez da erreza gizarte gurutzatu honetan baina zehaztasun minimo batzuetara heltzea beharrezkoa dugu ahoa askatu baino lehen.

Edozein herri zein lurraldetako etno-testuak jasoteko *berri emailea* ondo aukeratu behar da eta bere fitxa zehatza egin ondorio fidagarriak aterateko. Mapa eta guzti egiten bada askoz hobe. Alor honetan, zenbat eta fitxa zehatzagoa egin, hobe, eta batez ere ama-hizkuntza non eta nogandik ikasi duen azpimarratzea behar beharrezkoa da, sarritan bizi-lekua eta jaioterria ez direlako bat. Eta hau guzti hau ez bakarrik herri batetik besterako, herri barrurako ere bai, herri baten barruan ere ia-ia baserri batetik bestera aldakuntzak aurki daitezkeelako.

### 2. Grabaketaren historia:

Alde batetik tresneria egokia erabili behar da eta bestetik giro ona sortu zein berri emailea artegatu. Zenbat eta zaharragoagana joan hobe. Giro on baterako, senitartekoak izaten dira egokienak baina esataria ezezaguna bada bion lagun den norbaitekin joatea da onena.

Sarri askotan berri emaileak katean etorten dira, bata kontatzen daukazula beste bat aipatzen du eta firua jarraitzea baino ez dago. Anekdota gisa, behin, Orozkon, Jose Mari Lasa grabatzen nengoala, kontakizun bakoitzaren atzean hauxe esaten zidan: “seinbepaño gurago ñeunkek onitarako gausotarako nire amagana yoatea”. Eta halaxe egin nuen, Basaurira joan eta Magdalena Bengoetxeari egin grabaketa, eta jakina bere amaren euskera hainbat mamitsuagoa.

### 3. Ebokazioa:

Gure zaharrak azpira zahar baina bete-beteak dira eta sarritan eurak ere ez dira konturatzen. Horregatik, biltzaileak *ebokazio* metodoa erabili behar du azpira bete

horretan daukatena gogorarazteko. Ebokazio on bat lortzeko, norbera be azpira zahar beteak izatealakorik ez dago. Baina hori posible ez bada, gutxienez, biltzaileak, han hor hemen eginda dauden inkesta ezberdinen berri jakin behar du ezer ganorazko lortzekotan. Argibide lez eta bat behintzat aipatzearren, horra hor On Jose Migel Barandiaranen inkesta etnografikoa.

#### 4. Grabaketa neurria:

Zenbat eta gehiago hobeto, baina apurtxo bat zehatzuz, alor honetan, zer gura eta haxe edo zertarako gura eta haxetarako egin behar da grabaketa. Deskripzio-azterketaren esparrua luze besteko zabala da eta fonetikatik hasi eta morfo-joskerararteinoko haronakoan badago bai nondik ibili korpus egoki bat jasoteko.

Grabaketarik luzeenak eta era ezberdinetakoak egin arren ere, hankamotz gertuko gara eta hau nik neuk neugandik dakit. Nik, neure ikerketarako Zeberion bakarrik, hamazortzi auzunetan hogeta sei berri emaile izan ditut eta etorri handiko esatariak izan ere. Baina, ni neu be Zeberioko bertakoa naizenez, bertako euskaran bizi naiz eta jakina, jasotakoaz gain, neure barruko euskal altxorrera jo behar izan dut eta berriro jo berriemaileengana datu gehiagoren bila.

Baina, biltzaileak ez badu ezagutzen biltzen dabilen euskalki, azpieuskalki edo aldakia, grabaketan agertzen denarekin gelditzeko arriskua du eta gainera transkribitzerakoan zehaztasun arazoak izango ditu seguruenek. Guzti horregatik, zenbat grabatu horren ondoan norberaren gauzatasuna euki behar da kontuan berri emailearen iturriko ura batzaileak bere iragaztontzitik ondo iragazi dezan.

#### 5. Etno-testuen transkripzioa:

Etno-testu baten, sakoneko zehaztasunak ikertzeko, gaur eguneko laborategi fonetikoetara jo behar da. Baina etno-testuen jasoketa sinple bat egiteko, belarri bidez ere lor genitzake transkripzio fidagarriak metodologia on bat erabiliz gero. Esanda-koari eutsiz, hauexek lirake besteak beste etno-testuak jasoteko punturik behine-nak:

1. Euskara biziaren grabazioa fonologia mailan transkribitu " " artean adieraziz hasieratik bukaerara.

2. Fonologia maila mugatua denez, eta zehaztasun gehiago nahi badugu, fonetikara jo behar dugu "kortexte" artean adieraziz, eta hor ezin bada dena argitu, laborategia erabili.

3. Transkripzio mota bi hauek eredu literarioa behar dute ondoan, hizkuntza idatzitik mintzaturainoko bidea ikusi ahal izateko.

4. Ez nahastu "eredu literarioa" eta "euskara batua". Lurralde bakoitzeko etno-testu bakoitzak bere sistema literarioa du eta hortixek hasita aztertu behar da ahoskerarainoko bidea. Esate baterako Bizkaiko Zeberioko "esan audien" ez dator batuko "esan zuten"-etik. Batua jarri nahi bada, jarri, baina lagungarri edo ekibalente bezala.

5. Etno-testu bat transkribitzerakoan fonetikaraino joz gero, aurrezdik esan behar da zein alfabeto fonetiko erabiliko den: A. P. I., Filologikoa edo Etnologikoa.

Zehaztasuna neketsua izaten da eta sarritan erraztasunagatik fonologia maila

hutsa darabilgu transkripzioetan, baina horrela izanik ere, eta fonologia maila labur geratzen den etno-testuetarako, sarrera gisa edo eta ohar bidez, esan egin behar da edozein irakurlek oker-bide bat hartu ez dezan, izan ere eredu okerretatik ondorio okerrak datozelako eta jakina, gaur egun baditugu euki ere arrisku horretan jausi ez egiteko bideak.

Esandako guzti hau baieztatzeko hona hemen Zeberioko etno-testu baten transkripzioa. Patxi Etxebarria berri emaile, ni neu batzaile eta transkibatzaile.

### Itargia-Eguzkia eta Mundua

Aldi beten, nosik ona estakigule, eguskie t'itargie andra-gixonak i sirean, da, Martiko idergibarriko gaulendien eguskie sartzamendire nos elduko daoela, badiño-tzo eguskiek arrokeris beterik:

Ikustona Mundue, egunean baño egunean ederrago!

Bai, ikusiko etxoapa!

Ba, ori edertasun ori naure argi ta beroari esker dona gero!

Bai, eta ni naure gaubetako iñontzari, ala, iñontzak etxopatio esetarako!

Ori entzun botzen ba se, asarratuten yako eguskie, artzean dau esku biepete txinger gori bere barruti ta plast! arpegi arpegire bototzesan txingerrok itargieri eta erreunes bete bekokitik okotzerañoko gustie. Untxe t'untxe be esaun daus aik erreunak, aitutea baño estao itargieri idergi betea danean.

Baye, eguskie ain ikustauen berde, bildursartu inde egoan itargie eta karran asi yakon sein eguskiek bearrestanen bat in. Eguskie orduen atzerikara gañetu yakon mirue arrari letxe eta odolak ur eiteko gitxien faltan.

Yoan da yoan bata bestearen atzean, ilgora, idergi bete, ta ilbera gustien eragoyon eguskiek itargie kuxetan.

Itargien arnastue eta magalotza iños ikusi bakoak sirean eta bere burue olan ikusirik badiño berekitan: gesubeten gañetu bea yatak eguski armin kokorio ori, baya etxok berea ingo lelengoan!

Eguskie orpoetan ar barik yoakon atzerikara eta ogeta sortzigarren egunean ie ie kuxau inik aukela, estotzo itargiek bere burua gordetan!

Eguskiek orduen, susien, aurreak artutzesan da egunetxoan egunek etorri, itargie atzerikara ikustauen eta badiño bere artean: burue non gorde yostan baño estok orrek andra galerorrek!

Orduen, atzera in esin auen les, arin eragoyon eragon be itargie barriro atzerikara kuxetako da, orretarako denodu gustiegas eta inisitue baño arinago ibilite be, beste ogeta sortzi egun bear ixin ausen, baye itargiek ostera be bere burue gorde, batepaki non!...

Gaur be undiño or yabikus eguski-itargiok bata bestearen atzean, egunes beroa ta gaubes iñontza dariola.

### Transkripzio hirukoitza

Fonologia mailan jasotako etno-testu horretatik, metodo bezala, zati bat bakarrik

hartuko dugu eta maila fonologikoari deusala fonetikoak jarri azpian eta literarioak bien gainean.

Aldi baten, nozik hona ez dakigula

“aldı beten, nosık ona estakıgule”

[aldı beten, nosık ona estakıgule]

eguzkia eta iretargia andre-gizonak ei ziran

“eguskie t, itargie andra-gixonak i sirean”

[eguskie t, itargie andra gisonak i sirean]

eta, martiko idergiberriko gaulendian

“da, martiko idergıbarrıko gaulendıen”

[da, martiko idergıbařıko gaulendıen]

eguzkia sartzamandira noz helduko dagoela

“eguskie sartzamendıre nos elduko daoela”

[eguskie sarcamendıre nos elduko daoela]

badınotso eguzkiak arrokeriaz beterik

“badiñotzo eguskiek arrokeris beterik”

[badiñoco eguskiek ařokeris beterik]

ikusten dona mundua, egunean baino egunean ederrago!

“ikustona mundue, egunean baño egunean ederrago”

[ikustona mundue, egunean bano egunean edeřago]

bai, ikusiko ez joat ba!

“bai, ikusiko etxoapa”

[bai, ikusiko eřoapa]

ba, hori edertasun hori neure argi eta beroari esker dona gero!

“ba, ori edertasun ori naure argi ta beroari esker dona gero”

[ba, ori edertasun ori naure argi ta beroari esker dona gero]

bai, eta nire neure gauetako inontzari!

“bai, eta ni naure gaubetako iñontzari”

[bai, eta ni naure gaubetako iñondari]

ala, inontzak ez jok balio ezertarako?

“ala, iñontzak etxopalio esetarako”

[ala, iñoncak eřopalio esetarako]

hori entzun ba eutsan ba ze, haserretuten jako eguzkia,

“ori entzun botzen ba se, asarratuten yako eguskie, ”

[ori encum bocem ba se, asařatuten yako eguskie, ]

hartzen dau esku biak bete txingar gori bere barrutik eta plast!

“artzean dau esku biepete txinger gori bere barruti eta plast”  
 [arcean dau esku biepete činger gori bere bařuti eta plast]

aurpegi aurpegira bota eutsazan txingarrok iretargiari  
 “arpegi arpegire bototzesan txingerrok itargieri”  
 [arpegi arpegire botocesan čingeřok itargieri]

eta erreunez bete bekokitik okotzerainoko guztia  
 “eta erreunes bete bekokitik okotzerařoko gustie”  
 [eta eřeunes bete bekokitik okocerařoko gustie]

Oraintxe eta oraintxe be ezagun dauz hareek erreuneak  
 “untxe t, untxe be esaun daus aik erreunak”  
 [unče t, unče be esaun daus aik eřeunak]

aditutea baino ez dago iretargiari idergi betea danean  
 “aitutea bařo estao itargieri idergi betea danean”  
 [aitutea bařo estao itargieri idergi betea danean]

Etno-testuak, zenbat eta zehatzago jaso, hainbat argitasun gehiago gerora aztertu behar duenarentzat. Gure geure esku dago gaurra gerora bideratzea baina kontuz! zehatzak izan bestela egunen baten “estan bedarra beres igertuko da”.